



ARANTZako UDALA

www.arantzako.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantzako.udala@terra.es

2013KO URTARRILAREN 7KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohiko bilera.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2013.01.07.

Ordua: Arratsaldeko 19:30ean.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Imanol Artola Guridi jn.

Koldobike Gorostiza Uriguen and.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn

Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Ander Almandotz Indakoetxea jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

1.-Azkeneko aktaren onespina.

2.-2013ko aurrekontua eta plantilla organikoa: hasierako onespina.

3.-2012ko aparteko ordainsaria ordaintzeko eta 2013ko aparteko ordainsaria aurreratzeko onartutako Foru Legeari buruz.

4.-Arantzako eskola handitzeko proposamenak.

5.-Alkatearen ebazpenak.

6.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2012ko abenduaren 7ko akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, Imanol Artola jaunak eskatutako aldaketa hauekin:

-2. puntua: Imanol Artola jaunak adierazi du Koldobike Gorostiza zinegotzi andreak gai honetan interesak zituela eta eztabaida bitartean, uste duela, kanporatu beharko zuela. Aldiz, plenotik at gelditu beharrean, bertan modu aktiko batean parte hartu zuen baldintza batzuk paratu eta besteak aldatzen, zinegotzi honen parte hartzea ongi ikusia izan zen.

Imanol Artola jaunak, halaber, adierazi du Idazkariak ez zuela zinegotzi horri ohartarazi interesa zuela eta alde egin beharko zuela.

Alkateak erran zion ez zitzaiola iruditzen hori horrela zenik eta hori Idazkariak erantzun beharko duela eta erran prozedura egokia izan zen ala ez. Alkateak hori ziurtatzea eskatu zion Idazkariari.

Idazkariak adierazi du berak ez zuela ikusi alde egiteko arrazoia, zinegotziaren senarra parte hartzen ahal duelako deialdian eta jarritako baldintzak ez zutelako laguntzen izangai izateko alderantziz baizik. Idazkariak azpimarratu du gauzak ongi egin zirela.

Idazkariak ohartarazi du hau guztia ez zela 2012ko abenduaren 7ko Pleno horretan azaldu, eta Imanol Artola jaunaren ondorengo hausnarketa dela.

-8.puntuan: Imanol Artolak adierazi du idazkariak zirriborroa prest zuela jakinarazi zuela baino berak gogorazi ziola egoki izango zela eskolako obrak, Goienburu eta eskolako karrika eta bertze lanetarako diru kopurua jakin bat gordetzea.

Imanol Artola jaunak gaineratu du alkateak esan zuela, bere iritziz, aurrekontuek ez dutela ezertako balio eta konfidantzarik ez duela beraz.

Alkateak erantzun dio berak ez duela hori erran eta hitzak manipulatzeko ari dela.

Idazkariak erran du berak ez duela aktan jaso ez zuelako hala eskatu eta bere ustez ez zuela hitz horiek erran, aurrekontuak aldatzen direla baizik.

Imanol Artola jaunak azaldu zuen argiteri publikoaren lanak egin zituen enpresari, honez gero, faktura ordaindu zitzaiola. Behin ordainketaren inguruko informazioa jaso ondoren, alkateak enpresako arduradunekin hitz egin zuela esan zuen. Hauei esan zitzaion udala batzuetan diruz larri ibiltzen zela eta ea, premia izanez gero, ordaindutako zati bat udalari itzuliko zitzaiokeen. ECOLEDS enpresak proposamena onartu zuen. Zinegotzi batek interesa zein izango zen galdetu zuen, baina eztabaida bertan gelditu zen.

Une honetan Andoni Zulaika jauna azaldu zen galdetuz ia Plenoan egon litekeen, ia irekiak ziren. Erantzun zen Pleno guztiak irekiak direla. Inork ez zuen ezezkorik eman.

2.-2013KO AURREKONTUA ETA PLANTILLA ORGANIKOA: HASIERAKO ONESPENA.

2.1.-2013ko aurrekontuaren egitasmoa eta exekuzio oinarriak ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 276. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Gai honi buruz Koldobike Gorostiza andreak aipatu du Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak 2013. urterako babesturiko giza proiektuaren barne bakarrrik 3 pertsona kontratatzeke diru laguntza espero duela Nafar Gobernutik. Horrek izaten ahal du eragina Udalak langileren bat kontratzeko, bertze urteetan bezala.

Aho batez ERABAKI DUTE:

- 1) 2013ko aurrekontuaren eta exekuzio oinarrien espedientea hasiera batean onartzea.
- 2) Espedientea jendaurrean hamabortz egunez paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkez ditzaten.

2.2.- Arantzako Udaleko 2013ko plantilla organikoa ikusirik eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 236. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez ERABAKI DUTE:

- 1) 2013ko Arantzako Udaleko plantilla organikoa onartzea.
- 2) Espedientea jendaurrean hamabortz egunez paratzea, interesatuek aztertu eta bidezko erreklamazioak aurkez ditzaten.



ARANTZako UDALA

www.arantza.eu

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@terra.es

aurretik ordaindu beharko litzateke. Bigarrenak, berriz, heldu den urteko ekaineko eta abenduko aparteko lansariak urtarrilera eta uztaileira aurreratzeko aukera jasotzen du.

Osagarria ordaintzea edo aparteko lansaria aurreratzea ez dira gauzatuko aipatu Lege horiek NAOn argitara ematen ez diren bitartean.

Idazkariak adierazi du aipatutako Foru Legea (28/2012, abenduaren 28koa) 2013ko urtarrilaren 2an argitaratu dela.

Alkateak adierazi du bertze alkate eta bere alderdi politikoko pertsonekin egon ondoren ebatzi zuela osagarri pertsonala hori ordaintzea langile guztieei abenduaren 31an.

Denak jakinaren gainean gelditu dira.

4.-ARANTZAKO ESKOLA HANDITZEKO PROPOSAMENAK.

Udaleko Arkitektoek prestatu dute eskola handitzeko izaten ahal diren aukerak:

- 1.-172.000,00 eurokoa.
- 2.-168.000,00 euroka.
- 3.-207.000,00 eurokoa.

Aztertu ondoren aukerak denak ados agertu dira 172.000,00 euroko proposamenarekin, planteamendua eta prezioa alderatuz.

Lanak egiteko Nafar Gobernuako Hezkuntza Departamentuko diru laguntza lortzea beharrezkoa da eta hori aurrerago argitaratzen da (martxoa aldera eta hilabete bateko epea eskaera eta dokumentazioa aurkezteko).

Eztabaidatu da memoria baloratua egitea orain edo diru laguntza deialdia argitaratu arte itxarotzea.

Imanol Artola jaunak proposatu du memoria eta balorazioa aurretik prestatzea denboraz egiteko.

Ander Almandoz jaunak ere lehen egitearen alde agertu da, hor egonen delakoz egina.

Alkatea eta Koldobike Gorostiza, Jose Javier Mitxelena eta Jose Ignacio Madariaga zinegotziek erabaki dute diru laguntza deialdia argitaratu arte deus ez egitea ikusteko ia laguntzik izanen den, horrela gasto alferrik ez egiteko.

Ondorioz, ERABAKI DUTE:

1) Eskola moldatzeko diru laguntza eskatzeko dokumentazio teknikoa ez prestatzea diru laguntza deialdia argitaratu arte.

5.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2012ko 95tik 97 arte eta 2013ko 1. ebazpena).

6.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Jose Ignacio Madariagak adierazi du eskolak baratzea egiteko etxola Udalak jartzea eskatu zuela eta onartu zela 200,00 euro gastatzea. Baino ikusi ondoren ze aukerak dauden proposatzen du egurrezkoa erostea (500,00 edo 600,00 eurokoa). Aho batez, erabaki dute, baratzeke tresnak gordetzeko etxola erosteko 500,00-600,00 euro gastatzea.

Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:

7.-ARBURUA LUKANBIO SENDIEN ESKAERA.

Ikusirik Arburua Lukanbio sendiak aurkeztutako eskaera eta argazkiak, zehatzuz nolakoa eta non jarri nahi duten bere familikozen baten errautsak eta oroigarria (konkretuki Bulatxikitik Ternidarako bidean).

Gaia eztabaidatu da eta hauxe adierazi dute:

-Alkatea baimena ematearen alde agertu da baino ondorengoak aztertu eta aurretik arautuz.

-Koldobike Gorostiza andrea baimena ematearen alde agertu da baino gaia arautuz hurrengoetarako.

-Ander Almandoz jauna baimena ematearen alde agertu da.

-Jose Ignacio Madariaga jauna baimena ematearen alde agertu da baino azken baimena izanik.

-Imanol Artola jauna baimena ematearen alde agertu da baino azken baimena izanik.

-Jose Javier Mitxelena jauna baimena ematearen alde agertu da baino azken baimena izanik.

Ondorioz, ERABAKI DUTE:

1) Arburua Lukanbio sendiari baimena ematea bere familikoaren errautsak eta oroigarria jartzeko eskatutako lekuan eta baldintzetan.

2) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau bertze hirugarren baten baimenak baldintzaten ahal duela.

8.-2013KO SU EGUR LOTEAK.

Aurtengo su egur loteak emaien dira aurten ere landatu nahi den alderdian (Nafarroako Gobernuaren diru laguntzarekin) eta horretarako zuhaitzak bota eta ateritzeko premia dagoenez, lan hori Donato Larretxeari eman zaio eta lote bakoitza bidean utzi ditu.

Horrek kosto handitu du eta eskatzaileei lana erraztu.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)2013ko su egur loteak eskatu duten guztiei 30,00 euro kobratzea eta gehitu Donato Larretxearen gastoa.

Bertzerik gabe, gaueko 22:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Jaime Iturria Mitxelena jn.



Amurru